

Zangoza / 2026

# KULTUR AGENDA

## APIRILA



Ayuntamiento de  
Sangüesa/Zangoza



CASA DE CULTURA  
SANGÜESA KULTUR ETXEA  
PALACIO VALLESANTORO  
ZANGOZA



Nafarroako  
Gobernua



NAFARROAKO  
ANTZOKI SAREA

## Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxea

**Kultur Zerbitzuaren arreta ordutegia:** astelehenetan 09:30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera, 09:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

**Erakusketa aretoko ordutegia:** asteartetik ostiralera 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

**Helbidea:** Alfontso Borrokalaria Karrika, 2. **Telefonoa:** 948 870 251.

Kultur agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetara eska dezakezu: [infocultura@sanguesa.es](mailto:infocultura@sanguesa.es). Facebooken eta [www.sanguesacultura.es](http://www.sanguesacultura.es) web-orrian gure kultur agenda jarrai dezakezu eta datuak babesteko legea hemen kontsultatu:

 [www.facebook.com/culturasanguesa](https://www.facebook.com/culturasanguesa)  [www.instagram.com/culturasanguesa](https://www.instagram.com/culturasanguesa)

 **Kultur agenda orain whatsapp bidez ere bai.**

**Jaso ezazu kultur jardueri buruzko informazioa zuzenean zure mugikorrean, gure hedapen-kanal berriari jarraituz.**

## Karmengo Entzunaretoa

**Aldez aurreko salmenta: apirilaren 1etik aurrera** Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik [www.sanguesacultura.es](http://www.sanguesacultura.es) eta [www.sanguesa.es](http://www.sanguesa.es) web-orrien bidez. **Tel.:** 948 870 251.

**Salmenta txartel-leihatilan antzezen egunetan:** Karmengo Entzunaretoan (sarrerarik izanez gero), ikuskizuna hasi baino ordubete lehenagotik. **Txartel-leihatila Saioa hasi baino bost minutu lehenago itxiko da. Tel.:** 948 870 632.

Ikuskizun guztietarako sarrera gehieneko kopurua 6koa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Udalak pertsona bakoitzeko sarrera kopurua aldatu ahal izanen du ikuskizunaren arabera. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko. Ikuskizunaren etena sarreraren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izanen da.

**Beharapenak Gazte txartelarekin:** 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharapenez gozatu ahal izanen zara. Gazte Txartela leihatilan aurkeztu beharko da entzunaretoa sartzean, sarrera hor bertan edo internet bidez erosi bada ere.

### ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA

Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunaz hobeki gozatzeko ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonoa erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren. Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

### ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultur Zerbitzuarekin [infocultura@sanguesa.es](mailto:infocultura@sanguesa.es) posta elektronikokoan edo deitu 948870251 telefonora. Txartel-leihatilan ere adieraz daiteke erosketa egiterakoan.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzero eman.

Datuak babesteko legea hemen kontsulta dezakezu: [www.sanguesa.es](http://www.sanguesa.es)



- |    |                                                                                               |          |
|----|-----------------------------------------------------------------------------------------------|----------|
| 1  | Az Erakusketa. «El Bestiario en cuatro portadas románicas navarras» (apirilaren 26ra bitarte) | 4. Orr.  |
|    | Az Erakusketa. «Ekintza txikiak...» (apirilaren 9a bitarte)                                   | 4. Orr.  |
|    | Az Aste Santuko Nora Abesbatzaren kontzertua                                                  | 9. Orr.  |
| 2  | Og                                                                                            |          |
| 3  | Os                                                                                            |          |
| 4  | La                                                                                            |          |
| 5  | Ig                                                                                            |          |
| 6  | Lu                                                                                            |          |
| 7  | As                                                                                            |          |
| 8  | Az                                                                                            |          |
| 9  | Og Erakusketaren amaiera. «Ekintza txikiak...»                                                | 4. Orr.  |
| 10 | Os Bisita gidatua «El Bestiario en cuatro portadas románicas navarras» erakusketara           | 4. Orr.  |
| 11 | La Bakarriketa. «Mejor será reírnos»                                                          | 5. Orr.  |
| 12 | Ig                                                                                            |          |
| 13 | Al                                                                                            |          |
| 14 | As                                                                                            |          |
| 15 | Az                                                                                            |          |
| 16 | Og                                                                                            |          |
| 17 | Os Historia tailerra. Hitzaldia. «Baskunsako emakume jakintsuak. Historiaren sozializazioa»   | 10. Orr. |
| 18 | La Antzerkia, txotxongiloak. «Saeta»                                                          | 6. Orr.  |
|    | La Historia tailerra. Bisita gidatua                                                          | 10. Orr. |
| 19 | Ig Udal Banda Elkartearen kontzertua                                                          | 10. Orr. |
| 20 | Al                                                                                            |          |
| 21 | As Musika Eskolako ikasleen kontzertua                                                        | 7. Orr.  |
|    | As Liburuaren Eguna. Magia. «Plan de fuga de los libros secuestrados»                         | 8. Orr.  |
| 22 | Az                                                                                            |          |
| 23 | Og                                                                                            |          |
| 24 | Os «La familia sangüesina Desiré» liburuaren aurkezpena                                       | 9. Orr.  |
|    | Os Eparearen amaiera. «Ager Vasconum» Literatur lehiaketa                                     | 9. Orr.  |
| 25 | La Dantza. «Qualia»                                                                           | 7. Orr.  |
| 26 | Ig Musika Eskolen ikasle-trukearen kontzertua                                                 | 7. Orr.  |
| 27 | Al                                                                                            |          |
| 28 | As Liburuaren Eguna. Idazketa, marrazketa eta ipuin tailerra (euskaraz)                       | 8. Orr.  |
| 29 | Az                                                                                            |          |
| 30 | Og Erakusketa. «WEAR,T» (maiatzaren 24a bitarte)                                              | 5. Orr.  |
|    | Og Musika Eskolako ikasleen kontzertua                                                        | 7. Orr.  |

## Erakusketak



«EL BESTIARIO EN CUATRO PORTADAS ROMÁNICAS NAVARRAS». Argazkiak

**APIRILAREN 1ETIK 26RAL**

Nafarroako Astrolabio Elkartek estatutako erakusketak Nafarroako lau portada erromaniko monumentaletako hogei irudi biltzen ditu. Alegoria moraltzat harturiko animalia eder edo kezagarriak, benetakoak edo alegiazkoak, harrapatu ditu kamerak.

**BISITA GIDATUA**

**OSTIRALEAN, APIRILAK 10**

**Ordua:** 18:30.

**Iraupena:** 45 minutu.

**Doan.**

**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/  
Kultur Etxeko behealdeko erakusketa aretoa

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.



«EKINTZA TXIKIAK, ALDAKETA HANDIAK. HERRI TXIKIENAK ERE MUNDUA ALDA DEZAKE»

**APIRILAREN 9RA BITARTE**

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak (NUKF) Garapen Lankidetzarako Tokiko Funtsean parte hartzen duten toki entitateen eskura jartzen du dibulgaziozko erakusketa bat, herritarrei Nafarroako udalen konpromiso solidarioa eta 2025ean finantzatutako proiektuak hurbiltzeko aukera ematen diena.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko bigarren solairuko erakusketa aretoa.

**Antolatzailea:** Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak (NUKF).

## Erakusketak



**WEAR'T**  
Edurne Ibañez & Andrea Monreal



«WEAR,T»

**Eduardo Ibáñez eta Edurne Monrealen jatorrizko ideia**

**APIRILAREN 30ETIK MAIATZAREN 24RA**


«WEAR,T» kate-soinekoen erakusketa bat da, Edurne Ibañez Huarte moda eta jantzi eszenikoen Zangozako diseinatzailearen 5 sorkuntzetatik abiatuta.

Erakusgai daude 5 diseinu originalak, Irunberriko San Juan HLHIPn (2023) egindako 5 diseinuekin eta ikasturte honetan Sierra de Leire BHIko plastikako DBHko 3. mailako ikasleek egindako beste 5 diseinuekin batera.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultur etxeko erakusketa aretoa. **Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

**Erakusketa aretoko bisita-ordutegia:** asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

## Arte eszenikoak Karmengo Entzunaretoan



**Bakarriketa**

«Mejor será reírnos»

AROA BERROZPE

**LARUNBATEAN, APIRILAK 11**

Inprobisazioz, freskotasunez, sorpresaz, erokeriaz eta egia deseroso pixka batez betetako ikuskizuna, komediaren munduan emakumeei leku bat egiteko. Emakume batek bizitzan zehar aurkitzen dituen oztopo guztien errepasoa egiten du: sexuala, ezkontzazkoa, lanekoa eta abar. Ahoan ilerik gabe, Aroak bere bizitza osoa azaltzen du pikardiaz, barrez eta ikusleekin konplizitate handiz beteriko bakarriketan.

**Ordua:** 19:30.

**Iraupena:** 60 minutu.

**Ikusleak:** gazteak eta helduak.

**Aldez aurreko sarrerak:** 8 €. **Txartel-leihatilan:** 10 €.

**Gazte Txartelarekin:** 5 €. Beharrezkoa izanen da Gazte txartela leihatilan aurkeztea, sarrera entzunaretoan bertan edo internet bidez erosita ere.

**Laguntzailea:** Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkarte eta Nafarroako Gobernua.

# Arte eszenikoak Karmengo Entzunaretoan



## ANTZERKIA, TXOTXONGILOAK

**Sendaberri, paisaia eszeniko berriak**

«Saeta»

JAVIER ARANDA KONPAINIA

**LARUNBATEAN, APIRILAK 18**

**Zuzendaria:** Alfonso Pablo.

**Egilea eta interpretatzailea:** Javier Aranda.

Antzerkiari bere forma ezberdinetan egindako omenaldi batean, «Saeta» antzezlanak aktorearen rolaz, bere lanbidearen zentzu sakonaz, antzerkiaren funtsaz eta antzerkia bizitzarekin berarekin nola lotzen den hausnartzen du. Dena erortzen da, ezer ez da tragedia komiko honetan dirudiena. Antzerkiaren jolasak aukera ematen digu ez garena izateko, ezagutzen ez ditugun leku eta garaietan bizitzeko eta gure errealtatetik kanpo esperientziak bizitzeko.

## Sariak

Ikuskizun onena (Fira Titelles Lleida, 2025)

Autonomietako Epaimahaiaren ikuskizun onena (Fira Titelles Lleida, 2025)

Drac d'Or del Escorxador (Fira Titelles Lleida, 2025)

**Ikuskizuna amaitutakoan, nahi dutenek aktorearekin solasaldia izan dezakete.**

**Ikusleak:** gazteak eta helduak.

**Iraupena:** 60 minutu.

**Ordua:** 19:30.

**Aldez aurreko sarrerak:** 6 €.

**Txartel-leihatilan:** 8 €.

**Gazte Txartelarekin:** 5 €.

Beharrezkoa izanen da Gazte txartela leihatilan aurkeztea, sarrera entzunaretoan bertan edo internet bidez erosita ere.

**Antolatzaile eta diruz laguntzaileak:**

Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.






## Arte eszenikoak Karmengo Entzunaretoa



**DNA** '26  
FESTIVALDNA.COM



### DANTZA

#### DNA Egitaraua

«Qualia»

DINAMO DANZA

**LARUNBATEAN, APIRILAK 25**

**Zuzendaria:** Carmen Larraz.

**Sortzaile eta interpretatzaileak:** Jaione Azkona, Aimar Odriozola eta Carmen Larraz.

«Qualia» ohar-koaderno bat da, ideien, sinboloen, metaforen eta irudien glosario bat, errealitatea deitzen diogunari begirada aberastearren. Gizarte-giro honetan, badirudi teknologiak ihes egiten diola gure ulermenari eta birtualak lekua hartzen duela giza harremanetan. Horregatik, gorputzak zer leku duen galdetzen diogu geure buruari. Ulertzen ez dugun mundu batekin elkarreragiten duen entitate energetiko gisa uler dezakegu?

**Ikuskizuna amaitutakoan, nahi dutenek konpainiarekin solasaldia izan dezakete.**

**Ikusleak:** gazteak eta helduak.

**Iraupena:** 60 minutu.

**Ordua:** 19:30.

**Sarera:** 6 €.

**Antolatzailea:** Nafarroako Gobernua.

## Juan Francés de Iribarren Musika Eskola



### Musika Eskolako ikasleen kontzertua

**ASTEARTEAN, APIRILAK 21**  
**ETA OSTEGUNEAN, APIRILAK 30**

**Ordua:** 19:30.

**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.

**Vidrerres (Girona) eta Zangozako Musika Eskolen ikasle-trukearen kontzertua**

**IGANDEAN, APIRILAK 26**

**Ordua:** 12:00.

**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.

# Liburuaren eguna ospatzea



## MAGIA

«Plan de fuga de los libros secuestrados»

PEDRO III

**ASTEARTEAN, APIRILAK 21**

Pertsonaia misteriotsu bat iritsi da gure liburutegira eta laguntza behar du bahuak izan diren liburu batzuk askatzeko... Kontatu digunez, heldu gaizto batzuek ez dakite irakurtzen eta orain saihestu nahi dute haurrek deskubritzea zein zoragarria den liburu on batean murgiltzea.

**Ikusleak:** haurrak (lehentasunez 5 eta 10 urte bitartean). Adingabeek helduekin egon behar dute.

**Iraupena:** 60 minutu.

**Ordua:** 18:30.

**Doako sarrera** apirilaren 1etik aurrera gonbidapena jaso ondoren. Sarrerak Kultur Etxean erreserbatu ahal izanen dira, asteartetik ostiralera 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, 948 870 251 telefonora deituz edo [infocultura@sanguesa.es](mailto:infocultura@sanguesa.es) emailaz.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko erabilera anitzeko Aretoa.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.



## IDAZKETA, MARRAZKETA ETA IPUIN TAILERRA

«Ipuin zangozarrak» (Euskarazko tailerra)

**ASTEARTEAN, APIRILAK 28**

**Irakaslea:** Karekin Kultura.

Ospa dezagun Liburuaren Eguna Zangozan girotutako abenturazko istorioak idazten, marrazten eta kontatzen. Imajinatzen duzu?

**Partaide-kopurua:** 12.

**Publikoa:** familia-jarduera (4 urtetik gorako haurrak eta helduek lagunduta).

**Izena ematea:** doan 948 870 251 telefonoan edo [infocultura@sanguesa.es](mailto:infocultura@sanguesa.es) posta elektronikoan.

**Ordutegia:** 18:30etik 20:00etara.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko erabilera anitzeko Aretoa.





## Liburuaren aurkezpena



### «La familia sangüesina Desiré»

JAVIER LUIS TORRES JUGAND

**OSTIRALEAN, APIRILAK 24**

100 argazki baino gehiagoren bidez, batzuk 100 urte baino gehiagokoak, Zangozako familia honen historia kontatzen duen familia-liburua.

**Ordua:** 19:30.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko hitzaldi aretoa.

## Lehiaketak



### AGER VASCONUM IX. LITERATURA-LEHIAKETA. EUSKARAZKO POESIA ETA NARRAZIOA

**Antolatzaileak:** Tafalla, Erriberri, Lizarra, Zangoza, Lodosa, Gares, Viana eta Zizurko Udalak eta Irantzuko Mankomunitatea.

**Aurkezteko epea:** apirilaren 24a bitarte  
12 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduriko lehiaketa.

**Oinarriak:** [www.sanguesa.es](http://www.sanguesa.es),  
[www.sanguesacultura.es](http://www.sanguesacultura.es)

**Argibideak:** Tafallako Udalaren Euskara Zerbitzua  
[euskara@tafalla.es](mailto:euskara@tafalla.es) eta 948 70 18 11.

### HENRIKE II.A ALBRETEKOA, «ZANGOTZARRA», XXXI. IKERKUNTZA- LEHIAKETA

**Aurkezteko epea:** ekainaren 30a (egun hori barne).

**Oinarriak eta argibideak:** [www.zangotzarra.es](http://www.zangotzarra.es)

**Antolatzailea:** Henrike II.a Albretekoa Kultur Taldea.



## Zangozako talde kulturalen jarduerak



### ASTE SANTUKO NORA ABESBATZAREN KONTZERTUA

**ASTEAZKENEAN, APIRILAK 1**

**Ordua:** 20:00.

**Lekua:** Santiago eliza.

**Antolatzailea:** Nora Abesbatza.

## Zangozako talde kulturalen jarduerak



### ZANGOZAKO UDAL BANDA ELKARTEAREN UDABERRIKO KONTZERTUA

«Donde viven las personas»

**IGANDEAN, APIRILAK 19**

**Zuzendaria:** Javier Calvo Lerga.

«Bizitzak, herriak eta lekuak kontatzen dituzten musikak...»

Munduko komunitateei behatu, lagundu eta ahotsa ematen dien narratzaile bihurtuko da banda.

**Iraupena:** 60 minutu g.g.b. **Ordua:** 19:00.

**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa. **Sarrera:** 5 €.

**Antolatzailea:** Udal Banda Elkartea.



### BASKUNSA ELKARTEAREN HISTORIA TAILERRA

Tailerrak historia tradizionaleko datuei, datei, batailei eta heroiei testuingurua eta ikuspegia eman nahi die.

**Prezioa:** 5 € jarduera/pertsonako.

Doan bazkideendako.

**Argibideak eta izena ematea:**

asociacionbaskunsaelkartea@gmail.com



### HITZALDIA

**OSTIRALEAN, APIRILAK 17**

«Baskunsako emakume jakintsuak. Historiaren sozializazioa»

**Hizlaria:** Alberto Santana Ezkerra.

**Ordua:** 19:00etatik 21:00etara.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko hitzaldi aretoa.



### BISITA GIDATUA

**LARUNBATEAN, APIRILAK 18**

Elurtegira, errotara eta Noraren baselizara. Ibilbide zirkularra zubiraino eta erromatar hilarriraino, eta Andre Maria Erregina eliza bisitatu.

**Gidariak:** Iker Aramendía, Francisco Javier Gómez Vique eta José Luis Lizarraga.

**Ordua eta abiapuntua:** 10:00. Zangozako Andre Maria Erregina eliza.

**Antolatzailea:** Baskunsa Elkartea.

**Laguntzailea:** Rocamador Dantzari taldea.